

3seuskadi

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK ERRONKA SOZIALEI EMANDAKO ERANTZUNAK

2021

Garapen Jasangarrirako Helburuetatik eta Eskubide Sozialen
Europako Zutabetik egindako hurbilpena

Proiektuaren proposamena



3seuskadi

Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Aurkibidea

SARRERA	3
JUSTIFIKAZIOA	4
Erreferentzia-esparrua	4
EHSSren definizioa eta ezaugarriak	6
PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK	9
METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA	11
BIBLIOGRAFIA	13

SARRERA

EHSSko erakundeek zaugarritasun egoera berezian edo arriskuan dauden pertsonen, babesgabeen, mendekotasuna dutenen, bazterkerian daudenen edo desgaitasuna dutenen errealitate eta behar sozialei erantzuten diete haien jardueraren bitartez, bai zerbitzuak eskainiz, bai eragin sozialarekin lotura duten bestelako gizarte-funtzioak eginez. Hala, gizarte-erronkei ere erantzuten diete, esparru zabalagoan.

Garapen Jasangarrirako Helburuak eta Eskubide Sozialen Europako Zutabea erreferentziazat hartuz, ikerketa-proiektu honen xedea **EHSSko erakundeen lana ulertzeko eta horiengana gizarte-erronken eta -desafioen ikuspegitik hurbiltzeko esparru alternatiboa eskaintzea da**. Izan ere, horietan kokatu behar da haien zeregina, bideratu/baldintzatzen duten errealitate eta gizarte-eraldaketekin lotuta.

Horren asmoa erronka horiei erantzuteko EHSSk egiten duen ekarpena ikusaraztea da, gizarte-eraldaketarako eragile esanguratsu gisa duen rola erakustea eta bere identitate partekatua eta posizionamendua indartzea, beste interpretazio-gako batzuetatik.

JUSTIFIKAZIOA

Egungo gizarteak gero eta konplexuagoak dira eta dimentsio askotako gizarte-aldaketak bizi dituzte: sozialak, ekonomikoak, kulturalak, etab. Egun bizi ditugun arazo eta gizarte-aldaketa batzuek irudika dezaketen etorkizunaren inguruko kezka dago. Arlo sozialean, erronka ugari daude eta batzuk, biztanleriaren zahartzea edo familia-egituren aldaketak esaterako, nabariak dira duela urte batzuetatik. Beste batzuk, gizarte-arrakala digitalak edo nahi ez den bakardadea adibidez, bat-batean eta modu orokortuan geratu dira agerian Covid-19aren pandemiaren ondorioz.

Erronka eta gizarte-desafio horiek dakarten kezka dela eta, jasangarritasuna eta garapena bermatu ahal izateko konpromisoak lortzeko ahaleginak egiten ari dira. Garapen Jasangarrirako Helburuak edo Eskubide Sozialen Europako Zutabeak dira proposamen eta konpromiso zehatzak dituzten ekimen paradigmaticoen adibide. Geurera ekarrita, Eusko Jaurlaritzak erronka horietako batzuei aurre egiteko hedatu dituen estrategiak nabarmendu behar dira, hala nola erronka demografikoari lotutako GJHak eta Agenda 2030.

Erreferentzia-esparrua

2015ean, Nazio Batuen Batzar Orokorrak **Garapen Jasangarrirako Agenda 2030** onartu zuen. Mundu mailako aurrerapen-proposamena da, arlo sozialean, ekonomikoan eta ingurumen arloan giza garapen jasangarria ahalbidetzera bideratuta. 2030. urtea baino lehen lortu beharreko 169 helburuetan garatutako 17 erronka biltzen dituen ekimen orokorra.

Onartu zenetik, Agenda 2030 eta GJH mundu mailan aitortuta dagoen erreferentzia-esparru bihurtu dira. Hala, eraldaketa sozialeko agente ugari hartu dituzte helburu horiek, eta horien artean, Hirugarren Sektorre Sozialeko sareak eta erakundeek. Enpresa munduan, neurri horiek Nazio Batuen Mundu Ituna sinatuta zehaztu dira. Akordio horren arabera, enpresek eta erakundeek estrategiak eta eragiketak Hamar Printzipio unibertsalekin lerrokatu dituzte, eta erakundeetan eta erakundeetatik GJH horiek sustatzen dituzte. Alderdi publikotik, administrazioek maila guztietan (Europar, estatu mailan eta autonomia mailan) Agenda 2030 ezartzeko ekintza-planak ezarri dituzte. Euskadin, alde horretatik izandako lehen mugarrria Giza Garapen Jasangarriaren Estrategiarekin gobernu-programa lerrokatzea izan zen, Eusko Jaurlaritzak 2018ko apirillean Euskadi Basque Country 2030 I. Agenda onartu zuenean.

Eusko Jaurlaritzak arlo horretan hartutako konpromisoa eta apustua XII. Legegintzaldian Agenda 2030 eta Trantsizio Sozialeko Idazkaritza Orokorra sortuta zehaztu da. Eusko Jaurlaritzak aurtengo ekaina amaieran onartu du **Agenda 2030en Lehentasunen Euskal Programa**. Horixe da aipatutako Idazkaritzaren legegintzaldiko plana eta erakundeen arteko lankidetzaz, aliantza publiko-pribatua eta gizarte zibilarekiko lankidetzaz inplikatzeko. Ondorioz, eragile ugari hartzen dute parte horretan, administrazio publikoak eta enpresak barne, besteak beste, baina baita EHSSko sareak eta erakundeak ere.

Gainera, programak 7 proiektu traktore identifikatzen ditu, 4 ardatzetan banatuta eta bakoitza konpromiso traktore batetik begiratuta. Horien artean hauek nabarmendu behar dira, duten izaera soziala dela eta: a) Ekitatea (pobrezia eta gosearekin amaitzeko, desberdintasunak murrizteko eta bazterkeria prebenitzeko); b) Hezkuntzaren Auzolana (hezkuntza inklusiboan sakontzeko, gizarte kohesionatua, solidarioa eta jasangarriagoa sustatzeko); c) Opengela (hiri, mugikortasun eta hirigintza-ekosistema berde eta inklusiboak sustatzeko), edo d) Osasun Orokorra (osasun publikoa partekatuz, pertsona guztiengana heldu ahal izateko ondasun komun, tokiko eta orokor gisa).

Gainera, Agenda 2030 eta Trantsizio Sozialeko Idazkaritza Orokorrak, gizarte-agertoki berriak aztertzea sustatzeko, zehazki jorratu du erronka demografikoa “erronka demografikorako euskal estrategia 2030. Eraldaketarako palankak” strategiaren bitartez, eta gizarte-trantsizioan eragin zuzena duten beste helburuen bitartez, esaterako, Migrazioarako Euskal Itun Soziala.

Bestalde, **Eskubide Sozialen Europako Zutabea** Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak eginiko dokumentua da eta herritarrentzako eskubide sozial berri eta eraginkorrak jasotzen ditu. Europa indartsuagoa, bidezkoagoa, inklusiboagoa eta aukeraz beterikoa lortzeko gida da. Zutabearen helburua gizarte- eta enplegu-emaitza eraginkorrak lortzeko gida izatea da, etorkizuneko eta oraingo erronkei aurre egiteko, eta herritarren ezinbesteko beharrei erantzuteko, bai eta eskubide sozialaren erregulazio eta ezarpen hobea bermatzeko ere. Jasotako 20 eskubideak 3 kategoriatan egituratzen dira: aukera-berdintasuna eta merkatura sartzeko, bidezko lan-baldintzak eta babes soziala eta gizarteratzea.

Garatzeko, **Eskubide Sozialen Europako Zutabearen Ekintza Plana** egin da. Europako gizarte- eta ekonomia-eredua defendatzen du eta gizarte-eskubideak bermatu eta zainduko dituen arau-kode soziala aldarrikatzen du, GJHein bat etorritz. Ekintza Plan Horren lehentasuna zutabearen printzipioen helburuak eta jarduteko ildoak ezartzea da, baina alderdi hauek jorratzen dituzten konpromiso zehatzak ere: lanpostu hobek eta gehiago, gaitasunak eta berdintasuna eta babes soziala eta gizarteratzea.


EHSSren definizioa eta ezaugarriak

Proiektu honen ildotik, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak biltzen duen EHSSren definiziotik abiatzen da. Honako hau ulertzen du: Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala “gizarte-ekimeneko erakundeek osatzen dute, egoitza eta jarduketa Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak. Helburu nagusia da gizarte-ekimeneko jarduketan bidez gizarteratzea, garapenerako lankidetzeta eta zaugarritasun- edo bazterkeria-egoerei, eta desberdintasuna, babesgabetzea, desgaitasuna edo mendekotasun-egoerei aurre egiten dien pertsonen, familien, taldeen edo komunitateen eskubideen gauzatze eraginkorra bultzatzea”. Era berean, lege horrek honako hau jasotzen du: *“Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareztat hartzen dira besteen ordezkagarriak diren bigarren mailako eta maila altuagoko erakundeak, bai eta kolektibo jakin bat ordezkatzeko duten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko esku-hartze zuzeneko erakundeak ere, baldin eta jarduten duen lurralde edo esparru geografikoan ez badago kolektibo hori ordezkatzeko duen sarerik”*.

EHSSan oso erakunde anitzak daude jarduketa-arloari, egiten duten jarduerari edo zuzentzen diren kolektiboari dagokionez, besteak beste.

2020ko EHSSko Liburu Zuriko datuek erakusten dute erakundeen erdiek, gutxi gorabehera, emakumeak eta gazteak artatzen dituztela neurri handiagoan edo txikiagoan. Guztizkoaren % 42,2k egiten du lan haurrekin eta nerabeekin. Era berean, oso ugariak dira adinekoekin (% 35,8), etorkinekin (% 34,4) edo pobrezia-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin (% 34,4) lan egiten duten erakundeak.

KOLEKTIBO BAKOITZARI ZUZENTZEN ZAIZKION ERAKUNDEAK. (%)



ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUEN HORNIKUNTZAREN ARABERA. (%)



Zerbitzuen hornikuntzaren bidez, erakundeek behar sozialei erantzuten diete eta baliabideak gerturatu behar dituzten herritarrei, baliabide horiek eskuratzea erraztuz.


Entitate bakar batek eskain ditzakeen zerbitzu guztiak aztertuz gero, kontsultatutako entitateen % 62,2k aisialdi-zerbitzuak eskaintzen dituztela ikus daiteke. Halaber, erakundeen erdiek baino gehiagok prestakuntza- eta hezkuntza-zerbitzuak eskaintzen dituzte (% 57,4).

10 erakundetik 4k, gutxi gorabehera, esku-hartze psikosoziala egiten dute (% 41,8). Antzekoa da gizarte-laguntza (% 41,3), gizarte-heziketako esku-hartzea (% 39,9) eta aholkularitza edo orientazioa (% 39,9) eskaintzen duten erakundeen ehunekoa, baita informazio- eta orientazio-zerbitzuren bat dutenena ere (% 39,2).

Egiten duten jarduerari dagokionez, EHSSko erakunde gehienek (% 78,3), zerbitzuak eskaintzeaz gain, sentsibilizazioarekin eta eskubideen defentsarekin lotutako beste funtzio sozial batzuk garatzen dituzte. Erakundeen % 7,5ek zerbitzuak bakarrik eskaintzen dituzte, eta % 14,2k beste funtzio sozial batzuk bakarrik garatzen dituzte.



BESTE FUNTZIO SOZIALETAKO BAKOITZA EGITEN DUTEN ERAKUNDEAK. (%)



Zerbitzuak emateaz gain, beste funtzio sozial batzuk dira EHSSko erakundeen jardueraren elementu bereizle garrantzitsuenak. Erakundeen % 92,5ek funtzio horiek lotutako jardueraren bat egiten dute, modu eskusiboan edo zerbitzuen hornikuntzarekin uztartuta.

Entitateen gehiengo zabalak sensibilizazio-ekintzak egiten ditu (% 84,2). 10 erakundetik 6 inguruk gizarte-partaidetza eta elkarrenganako laguntza sustatzearekin lotutako jarduerak garatzen dituzte (% 61,8), eta beste horrenbestek salaketara eta eskubideen sustapenera bideratutako ekintzak (% 57,9).

PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK

Proiektu honen xedea **EHSSko erakundeek lana ulertzeko eta horiengana gizarte-erronken eta -desafioen ikuspegitik hurbiltzeko esparru alternatiboa eskaintzea da**. Izan ere, horietan kokatu behar da haien zeregina, bideratu/baldintzatzten duten errealitate eta gizarte-eraldaketekin lotuta.

Testuinguru hori Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta Eskubide Sozialen Europako Zutabearekin lotuko da. Horrekin, EHSSko erakundeek erronka sozialen esparruan egiten duten lana ikusarazi nahi da, gizarte-eraldaketan egiten duten ekarpena erakutsi eta, gainera, EHSSren identitate partekatua eta gizarte-eragile esanguratsua den heinean duen posizionamendua indartu.

1. **Interpretaziorako esparru zabala eskaintzea** erantzuten dituzten erronka sozialen inguruan EHSSko erakundeek egiten duten lana ulertzeko. GJHak eta Eskubide Sozialen Europako Zutabea hartuko dira erreferentziatzat.
2. **Erakundeek gizarte-lana aztertzea, jorratzen dituzten erronka sozialen ikuspegitik** eta GJHrekin eta Eskubide Sozialen Europako Zutabearekin lotuta.
3. **Elkarrekin gogoeta egitea** eta gogoeta-esparru horrek eskain ditzakeen **erakundeek arteko loturak eta sinergiak** identifikatzea.

Hurrengo koadroak helburu bakoitza erakusten du, lan-prozesuaren gidari izango diren galderekin.

ERANTZUN BEHARREKO HELBURU	EZEZAGUNAK
EHSSko erakundeen lana ulertzeko interpretazio-esparru zabala eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none">• Erronka sozialen interpretazio-esparruak zer alderdi positibo eskaintzen ditu EHSSren jarduera ulertzeko, ematen dituzten zerbitzuez edo egiten duten gizarte-eraginaz harago?• GJHeK eta Eskubide Sozialen Europako Zutabeak zer balio/interes eskaintzen ditu erakundeen lana kokatu eta bideratzeko erreferentziako esparru gisa?• Euskadin, zer erronka sozial nagusi daude esparru horiei lotuta?
EHSSko erakundeen lan soziala jorratzen dituzten erronka sozialen ikuspegitik aztertzea	<ul style="list-style-type: none">• Nola lotu dezakegu sektoreko jarduera (arloan arabera, kolektiboen arabera, kontingentzien arabera...) erronka sozial horiekin?• Zer elementu hartu behar dira kontuan horretarako?• Nola erantzuten diote erakundeek GJHei eta Eskubide Sozialen Europako Zutabeei?
Elkarrekin gogoeta egitea eta erakundeen artean eta beste sektoreekin dauden balizko loturak eta sinergiak identifikatzea	<ul style="list-style-type: none">• Zer elementu parteka dezakete EHSSko erakundeek eta sareek haien jarduera erronka sozial jakin batetik pentsatuz gero?• Partekatutako zer zailtasun daude?• Zer sinergia egon daitezke haien artean erronka horiei erantzuteko? Eta sektore publikoarekin, ekimen pribatuekin eta familia-komunitatearekin?

METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

Planteatutako helburuak ikusita, proiektura ondoen egokitzen dena metodologia mistoa da, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatzen dituen.

Hauek dira erabiliko diren teknikak:

1. Erronka sozial nagusiei buruzko gogoetak partekatzeko pertsona adituekin egindako **elkarrizketa sakonak**. Elkarrizketa erdiegituratuaren gidoi batetik abiatuta, ikertzaile-taldeak hirugarren sektore sozialeko eta akademikoko adituak elkarrizketatuko ditu, beren ibilbide eta garrantziarekin, informatzaile aditu gisa, gizarte-erronka nagusiak mugatu ahal izateko. Informatzaile garrantzitsuei 7-9 elkarrizketa sakon egitea aurrez ikusi da.


Elkarrizketatuko diren pertsonen lagina aukeratzeko, nahita egindako laginketa bat hartuko da; beraz, lagineko pertsonak ez dira ausaz aukeratuko, nolabaiteko irizpidearekin baizik. Ez da beharrezkoa ordezkagarritasun maila bat izatea, baina informazio esanguratsua jasotzeko baldintzak sortu behar ditu ikertzaileak. Hala, informazioaren bolumena (saturazioa) eta kalitatea (aberastasuna) ongien bermatuko duten pertsonak aukeratzera bideratu behar du laginketak. Lagin arrazoitua edo komenigarritasun-lagina ere deitzen zaio, bertan ez baitira kalkulu estatistikoak sartzen, ez da estatistikoki adierazgarria, baina teknika kualitatiboekin lan egiteko modu egokiena da, eta pertsona kopuru murrizari egiten zaio kontsulta, informatzaile egokienak direla uste diren horiei, hain zuzen ere.

2. Ikerketarako testuinguruaren esparrua ezartzeko **bigarren mailako iturrietatik datuak** bilatzea. Estatistika-eragiketa desberdinetatik datuak jasoko dira gizarte-eraldaketaren eta identifikatutako erronka sozialen inguruko gaietara lehenengo hurbilpena egiteko: aldaketa sozio-demografikoak, giza jokabidearen aldaketen joerak, giza desberdintasunaren inguruko adierazleak, etab. Datu horiek proxie gisa erabiliko dira azterketa-helburuarekin duten lotura dela eta. Harreman horren arabera, testuinguru-elementuak sar daitezke.
3. **EHSSren datu diagnostikoak berriro testuinguruan** jartzea. HSEBk Barometroaren/Liburu Zuriaren lan-prozesuetatik bilduta dituen datuetatik abiatuta, ikerketa horietan parte hartu duten erakundeen jardueraren azterketa zehatza eta xehea egingo da, hautemandako erronka sozialen araberrako kategoriatan banatzeko. Besteak beste, erakundeek jarduera zer kolektibori zuzentzen dioten, zer zerbitzu eskaintzen dituzten edo eragin sozialarekin loturiko zer jarduera dituzten aztertzea proposatzen da. Hortik abiatuta, hainbat elementu osagarri hautemango dira, kategoriak ezarriko dira eta hautemandako erronka sozialei erantzuteko erakundeek duten jarduera “berrirakurtzeko” edo “berriro testuinguruan jartzeko” interpretazio-ariketa egingo da.

4. **Eztabaida-taldeak.** Erdi-egituratutako galderen gidoi batetik abiatuta, ikerketa-taldea erronka sozial berari erantzuten dioten erakundeetako kideekin elkartuko da. Topaketarako eremua sortzea da eta erakunde desberdinetako pertsona-taldeen parte hartzea da helburua (desberdinak tamainari dagokionez, jarduketa-arloari, jardueraren hartzailea den kolektiboari, etab.), elkarrekin erronka sozialaren inguruan gogoeta egin, ikuspegiak partekatu eta balizko sinergiak sortu ahal izateko.

Aurrez aurre pertsona-talde bat elkartzea da asmoa, haien iritziak eta ikuspegia adieraz ditzaten, eta haien errealitatearen analisisian parte har dezaten. Teknika horrek ahalbidetzen du pertsonen interakzioa izan eta ikuspegiak partekatzen dituzten heinean etengabeko gogoetak sortzen joatea, eta taldeko gainerako pertsonen “babesa” sentitzea, eremua, gogoeta eta bizipen komuna partekatzen baitute. 6 eta 8 eztabaida-talde egitea aurreikusi da, ikerketaren aurreko faseetan identifikatu eta mugatu diren erronka sozialen arabera.

Hori guztia kontuan izanda, proiektua lantzeko laneko plan hau proposatzen da:



BIBLIOGRAFIA

Europako Batzordea (2021). Eskubide Sozialen Europako Zutabearen Ekintza Plana Hemen eskuragarri: https://eur-lex.europa.eu/resource.html?uri=cellar:b7c08d86-7cd5-11eb-9ac9-01aa75ed71a1.0004.02/DOC_1&format=PDF

Euskadi. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektorerako Sozialari buruzkoa. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>

Eusko Jaurlaritza (2018). Euskadiko Hirugarren Sektorerako Soziala sustatzeko estrategia. Hemendik hartua: <https://www.sarensarea.eus/images/documentos/DocumentacionDeReferencia/Estrategia-de-Promocin-del-Tercer-Sector-Social-28-11-2017.pdf>

Eusko Jaurlaritza (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektorerako Soziala sustatzeko estrategia. 2018-2020 Legealdiko Plana*. Hemendik hartua: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_ss/es_planes/adjuntos/Estrategia%20promoci%C3%B3n%20tercer%20sector%20-%20Plan%20de%20la%20Legislatura%20CAST.pdf

Eusko Jaurlaritza (2018). Euskadi Basque Country 2030 Agenda. Garapen Jasangarrirako Agenda 2030i Euskadik egindako ekarpena. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/agenda2030/es_def/adjuntos/Agenda_Euskadi_Basque_Country_2030_desarrollo_sostenible.pdf

Eusko Jaurlaritza (2021). Lehetasunen Euskal Programa 2030. Hemen eskuragarri: https://bideoak2.euskadi.eus/2021/06/29/news_70353/CAST_Programa_prioridades.pdf

Eusko Jaurlaritza (2021). Erronka demografikorako euskal estrategia 2030. Eraldaketarako palankak. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/retodemografico_agenda2030/es_def/adjuntos/Documento-de-trabajo-III.pdf

Hirugarren Sektorerako Sozialaren Euskal Behatokia (2020). COVID-19aren eragina Euskadiko Hirugarren Sektorerako Sozialeko erakundeetan. Hemendik hartua: https://3euskadi.eus/wp-content/uploads/Informe_COVID_19.pdf

Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia (2021). Euskadiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria 2020. https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/LibroBlanco_DEF_2019-2020_es-comp.pdf

NBE (2015). Gure mundua eraldatzea: Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda ebazpena. Hemen eskuragarri: https://www.un.org/ga/search/view_doc.asp?symbol=A/RES/70/1&Lang=S

Europako Parlamentua, Kontseilua eta Batzordea (2017). *Pilar Europeo de Derechos sociales*. Hemen eskuragarri: https://ec.europa.eu/commission/sites/beta-political/files/social-summit-european-pillar-social-rights-booklet_es.pdf